

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren erabakia, ikasle kontseilu eta ikasle elkarteei laguntza kulturalak emateko araudiari buruzkoa
(2011ko urriaren 27ko Batzarrean onetsitakoa)
(2015ko apirilaren 1ean aldatutakoa)

Justifikazioa

2011ko otsailaren 24an argitaratutako UPV/EHUren Estatutuek UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren funtzio gisa aitortzen du 20.2 artikulua c) atalean honako hau: "Kontseiluaren beraren aurrekontuaren banaketa erabakitzea, UPV/EHUren Aurrekontuan hala agertzen dena". Ikasle Kontseiluak konpromiso tinkoa du ikasle kontseiluen jardura eta UPV/EHUko ikasleen artean elkartegintza bultzatzeko eta jarduerak garatzen laguntzeko. Ikasle Kontseiluaren konpromiso horren emaitza da urtero kultura jarduerak laguntzeko deialdia egitea.

Ikastegietako ikasleen Kontseiluen aldetik egondako eskaera falta eta antolatutako jardura kopuruaren beherakada ikusirik, ikaslegoaren parte hartzea sustatu eta araudiarekin izandako arazoak konpontzeko araudia Ikasle Kontseiluen benetako beharrei moldatzeko beharra dagoela kontsideratzen da.

UPV/EHUKO IKASLE KONTSEILUAREN ARAUDIA, ZENTROEN IKASLE KONTSEILUEN DIRU LAGUNTZA EKONOMIKOETARAKO

Justifikazioa

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak konpromiso tinkoa du ikastegi eta campusetako ikasle kontseiluen jardura bultzatzeko eta jarduerak garatzen laguntzeko. Konpromiso horren emaitza da Ikasle Kontseiluak urtero jarduerak laguntzeko deialdia egitea.

1. artikulua.- Deialdiaren xedea

1. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak modu berezian onetsiko du ikasle kontseiluen jardueretara bideratuko duen aurrekontuko ehunekoa.
2. Araudi honen ondorioei dagokienez, ikaskuntza akademikoa, kultura eta/edo unibertsitate hedapena osatzen duen edozein jardura proiektu aurkeztu ahalko da.

2. artikulua - Hartzaileak

1. Deialdi honen hartzaile izango dira behar bezala eraturako UPV/EHUko ikastegietako ikasle kontseilu guztiak.

3. artikulua.- Ikasle Kontseiluetarako

1. Presidentetzarako hauteskundeak egin eta gero, ikastegiko ikasle kontseiluak bertako zuzendaritza zein kidek osatuko duten jakinaraziko du.
2. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko Batzarrak, ikasle kontseiluen kultura jardueretarako partidak onetsi eta gero (Esperientzia Gelak barne), diruzaintzak hala proposatuta, horien guztien artean banatzeko irizpide bat onetsiko du. Irizpidea luzatu egingo da harik eta organo horrek beste irizpide bat onetsi arte.
3. Kontseiluko presidentzia edo diruzaintza arduradunak egingo ditu eskabideak, idatziz, **AC1 eranskinaren** arabera, eta jarduera justifikatu beharko dute. Horrez gain, araudi honetan jasotakoa bete beharko dute.

4. artikulua.- Justifikazioa

1. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak gastuak egiaztatzeko barne dokumentuak banatuko ditu (**AC3, AC4 eta AC5 eranskinak**).
2. Kontseiluetako jardueraren arduradunak, hilabeteko epean, azaroaren 30a baino lehen betiere, laguntzen bidez ordaindutako jarduera guztien gastua justifikatzen duten faktura originalak bidali beharko ditu.
3. Goian adierazitako epean justifikaziorik aurkezten ez bada, bertan behera gelditu ahal izango da laguntza.
4. Bidaiak, ostatu hartzeak, maketazioa eta inprimaketa UPV/EHUekin hitzarmena duten enpresen edo haren Argitalpen Zerbitzuaren bidez egingo dira, beste enpresa batek aurrekontu txikiagoa aurkezten duenean izan ezik.

5. artikulua - Onartutako laguntza ordaintzeko baldintzak

1. Ikastegietako ikasle kontseiluei emandako laguntzen ordainketa behin faktura aurkeztu eta araudi honetako eskakizun guztiak bete ondoren egingo da.
2. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren anagrama erantsiko zaie deialdi honek diruz lagundutako publizitate eta argitalpen guztiei (aldizkariak, kartelak, etab.), eta UPV/EHUko estilo liburua hartuko da kontuan horretarako. Era berean, jardueraren arduradunak zenbait ale bidaliko ditu jardueraren justifikazio gisa. Ikastegietako Ikasleen Kontseiluko bulegotik kanpo burututako jardueretan Ikasle Kontseiluaren anagrama agertu beharko da.

3. Ikus-entzule kopuru jakin baterako kontzertu/jardueren kasuan, eskarian gehienezko parte hartzaile kopurua agertu beharko da. Izena eman duten ikasleen kopuruak ezarritako parte hartzaile kopurua gainditzen badu, izen emate ordenaren araberako prioritatea emango da eskarian beste irizpide baten beharra ageri ez bada.
4. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko diruzaintzak argibideak eskatu ahal izango dizkio jardueraren arduradunari, eta 10 egun naturaleko epean -eskaera egunetik kontaktzen hasita- erantzun beharko dio. Erantzunik ez badago, eskaeran atzera egin dela ulertuko da.

6. artikulua- Deialdi honetatik kanpo dauden gastuak

1. Deialdi honen bitartez ez dira finantziatuko ikasleei bideratutako jarduerak non ikasleei kuota, sarrera edota inskripzio tasa bat eskatzen zaien.
2. UPV/EHUko ikasle/irakasleek ez dute ordainsaririk jasoko jarduera hauengatik. Gastuak dieta kontzeptu gisa bakarrik ordaintzea aurrez ikusi da: joan-etorriak, ostatua eta otorduak (dagozkion inprimakiak bete beharko dira). UPV/EHUtik kanpoko hizlariek 60 euro jasoko dituzte gehienez hitzaldi eta egun bakoitzeko, dietak kontuan hartu gabe, eta UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko asanbladak beste baldintza batzuk baimentzen ez baditu.
3. Ez dira gastutzat hartuko baimenik gabe hizlariei eginiko oparien fakturak.

7. artikulua.- Araudia ez betetzea

1. Araudi honetan jasotako eskakizunen bat betetzen ez bada, emandako laguntza bat ordaintzea ukatu ahalko da.
2. Horrez gain, laguntza ordaintzea ukatu ahalko da egindako jarduera aurkeztutako proposamenarekin alderatuta nabarmen desberdina bada.